



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2015eko urriaren 6a

16. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E S A I L A:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen eraikuntza. José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztu du (2. or.).

#### F S A I L A:

##### **Galderak:**

- Galdera, eremu ez euskalduneko ikastolei buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (3. or.).
- Galdera, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salaren 246/2015 eta 256/2015 epaiei buruzkoa. Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariaren zilegitasunari buruzkoa, foru erkidegoan ikurrinarekin identifikatuak sentitzen diren nafarren kopurua zehazteari dagokionez. Ana Beltrán Villalba andreak egin du (4. or.).
- Galdera, jakiteko zer helburu dituen Osasun Departamentuak egitura berriarekin. Marisa de Simón Caballero andreak egin du (5. or.).
- Galdera, B meningokokoaren aurkako txertoak doako txertaketa-egutegian sartzeari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, “Erregai alternatiboen balorizazioa Olaztiko zementu fabrikan” izeneko Udalez gaindiko Plan Sektorialari buruzkoa. Galdera erretiratzea (6. or.).

---

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen eraikuntza.**

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita abian jar dezan Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen eraikuntza.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko kide José Javier Esparza Abaurreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du.

Itoiz eta Nafarroako Ubidea oinarritzko bi zuta-beak dira Foru Komunitatearen politika hidraulikolari eta ureztatze politikari dagokienez.

Nafarroako Ubideak eta haren eremu ureztagarrien transformazioak badute lege oinarri bat eta interes publikoko eta erabilgarritasun sozialeko justifikazio bat, ondokoetatik heldu direnak: Itoizko

urtegiaren eta Nafarroako Ubidearen interes orokorra deklaratzeko duen uztailaren 8ko 22/1997 Legea; uztailaren 24ko 1664/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ebro ibaiaren arroaren Plan Hidrologikoan jasota egotea; Nafarroako Ubidea egiteko Lankidetzaren Hitzarmena, Ingurumen Ministerioak eta Nafarroako Gobernuak 1998ko urriaren 19an sinatua; abenduaren 29ko 15/1995 Foru Legea, zeinaren 22. xedapen gehigarriak interes orokorreko deklaratzeko baititu, ondorio guztietarako, Nafarroako Ubidea egiteko eta ubidearen eremu ureztagarrian ureztalurrak ezarri eta hobetzeko obrak; Ureztaketaren Nazionalaren zirriborroan eremu ureztagarriei buruz eginiko aurreikuspena; eta Nafarroako Foru Komunitatearen Ureztaketaren Plana, zeina Nafarroako Gobernuak 1998ko ekainaren 29an eta Nafarroako Parlamentuko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak 1998ko abenduaren 2an eginiko bilkuran onetsi baitzuten.

Hori guztia dela eta, mozio hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala jar dezan abian Nafarroako Ubidearen 2. fasearen exekuzioa, halako moldez non bermatu egingen baitu eta lehentasuna emanen baitio Erriberak –hain zuzen ere, Nafarroan defizit hidriko handiena duen eremuak– lehen mailako beharizan bat ase izateari, eta hari ur-hornidura bermatzeari.

Iruñean, 2015eko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, eremu ez euskalduneko ikastolei buruzkoa.***CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, eremu ez euskalduneko ikastolei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-talderari atxikitako Carlos Gimeno Gurpeguik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babese-

an, honako galdera hau egin du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

2015-2019 urteetarako Nafarroako Gobernua-ren programa-akordioan esaten da, Hezkuntzari buruzko atalean, beharrezkoa dela "Eremu ez-euskalduneko ikastoletarako prozedura berezi bat diseinatzea, otsailaren 24ko 4/2015 Foru Legea betetzeko, Euskarari buruzko abenduaren

15eko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatzen duena".

Ikasturtearen hasieran, Hezkuntzako kontseilariak adierazi zuen aldaketak egon zitezkeela eremu horretako ikastoletan, baina gero atzera egin bide zuen; hortaz, ez dago argi ikastetxe horiekin zer gertatuko den. Hona galdera:

Eremu ez euskalduneko ikastolak publiko bihurtuko al dira?

Iruñean, 2015eko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

## **Galdera, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salaren 246/2015 eta 256/2015 epaiei buruzkoa.**

*KOLDO MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salaren 246/2015 eta 256/2015 epaiei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lehendakarietzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ikusita Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak jaulkitako 246/2015 eta 256/2015 zenbakiko epaiak, zeinetan esaten baita Nafarroak ez daukala eskumenik ibilgailu motordunen zirkulazioari eta trafikoari dagokienez, hori Estatuaren eskumen osoko gaia izaki, honako galdera hau egiten dugu:

Zure departamentuak zer balorazio egiten du epai horiei buruz?

Zer neurri pentsatu duzu hartzea Foru Komunitatearen arlo horretako eskumena bermatzeko?

Iruñean, 2015eko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea

## **Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariaren zilegitasunari buruzkoa, foru erkidegoan ikurrinarekin identifikatuak sentitzen diren nafarren kopurua zehazteari dagokionez.**

*ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariaren zilegitasunari buruzkoa, foru erkidegoan ikurrinarekin

identifikatuak sentitzen diren nafarren kopurua zehazteari dagokionez.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

SER irrati-katearen foroan irailaren 29an egindako adierazpenetan esan zenuen ikurrina, Euskal

Autonomia Erkidegoaren bandera izateaz gain, sinbolo oso maitatua dela nafar askorentzat, eta berezkozat hartzen dutela, Nafarroako bandera bezainbeste. Uste duzu legitimatuta zaudela zehazteko zenbat nafar sentitzen diren gure erkidegoan ikurrinarekin identifikatuta eta esan dezaitezuela kopuru hori gehiengo sozialari dagokiola?

Iruñean, 2015eko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

---

## **Galdera, jakiteko zer helburu dituen Osasun Departamentuak egitura berriarekin.**

### *MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Marisa de Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zer helburu dituen Osasun Departamentuak egitura berriarekin.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Jakin dugunez, Osasun Departamentuaren egitura berriak berekin dakar Oinarrizko Osasun Laguntzako zuzendariordeak murriztea eta Ospitale Laguntzakoak handitzea.

Osasun Departamentuak zer helburu dauka berregituratze horrekin? Gobernuaren ustez, egitura berri horrek hobetu eta bultzatu egingen al du Nafarroan oinarrizko osasun laguntza?

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

## **Galdera, B meningokokoaren aurkako txertoak doako txertaketa-egutegian sartzeari buruzkoa.**

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, B meningokokoaren aurkako txertoak doako txertaketa-egutegian sartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den José Javier Esparza Abaurreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak erantzun diezaion.

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik doako txertaketa-egutegian sartzeko B meningokokoaren aurkako Prevenar 13 txertoa eta B meningokokoaren aurkako txerto berria?

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

## **Galdera, “Erregai alternatiboen balorizazioa Olaztiko zementu fabrikan” izeneko Udalez gairidiko Plan Sektorialari buruzkoa.**

### **GALDERA ERRETIRATZEA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera “Erregai alternatiboen balorizazioa Olaztiko zementu fabrikan” izeneko Udalez gairidiko Plan Sektorialari

buruzkoa zen, eta 2015eko irailaren 25eko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza



